

## **Aterki baten bizitza** **(Berak azalduta )**

### I

Morroi zintzorik ba'da lurbiran  
ni nazala, nok ez daki?  
Zaparradea asten danean  
ni naz geienen Aterki.

Urkamendian eskegita lez,  
ala txoko bazterrean  
eukiten nabe, baita ni billa  
euria yausten danean.

Danak ni billa. «Non da Aterki?»  
etxeko danen abesti;  
ni barriz ixil, bazterren baten  
ugazabaren zain beti.

Alango baten ikusten nau-ta,  
«emen da» diño yaubeak,  
arpegi alaiz erakutsiaz  
pozez etxean guztiak.

Laster yaubean buru gaiñean,  
perretxiko zabal antzez,  
an noia, txairo, baita zibuka  
burrakan uzaban aldez.

Alde guztiak negar-malkoka,  
etxeratzeko gurariz,  
ibilaldia amaitutean  
an nozu txokoan barriz.

Alditxo baten, izerdi patsez  
iturriaren antzera  
egon ondoren, bialtzen nabe  
neure txoko bazterrera.

Ni antxe barriz txitik ein barik  
atseden aldi gozoan,  
lo aldi eder baten gurariz  
nekaldiaren ondoan.

Onetan yoan yataz urteak,  
beti gertu dan morroi lez,  
beintzat saietsak apurtu barik  
aize boladan indarrez.

Aldia baiña errukige da,  
nor da garaitu leikena?  
Emen nozu bai, naiz azur loka...  
Nok daki nire azkena?

Oldozkun oneik egiñaz negon  
etorkizunan begira,  
tapa-tapaka eldu zanean  
yaubea nengan tokira.

Eskuan artu, begirada bat,  
atera nindun txokotik,  
artu galtzarpe ta arro yoian  
txakurra bere aurretik.

An nobaitetik beste txakur bat  
agertu zanez batean,  
alkar-aginka, asarre biziz  
ziran bide bazterrean.

Egia esan, nire uzaba  
bakemaitalle dularik,  
bien artean bizkor sartzeko  
ez eban galdu astirik.

Eskuan beste «zerik» ez eukan,  
ta baimen eskatu barik,  
yaso ninduen zartada baten  
lortu zeikela usterik.

Indar guztiaz astindu nindun  
txakur-bizkarren gainean.  
Aizan zan bat! Uste neban nik  
nintzela azken unean.

Zorionean baiña bizirik  
urten ba'neban, orraitik  
nire saietsak ordaindu eben  
iñoren obenagaitik.

Saiets guztiak lokatu eta  
maillatu bizkar-azurra,  
uste neban nik yoan bearko  
nebala beste mundura.

Era onetan ba'nengoan be  
errukiaren bearrez,  
ez neban beintzat asko aurkitu;  
uzabak ziñon asarrez:

«Aterki zar au ez da geiago  
gauzako euri aldian,  
yaurti bear dot ondakiñakaz  
erriko simaur artean».

Biotz-zarrada gogorra egin  
eustan epai errukigek.  
Ixil nintzan ni. Baiña zirudin  
ba-ziñoala norbaitek:

«Ain zerbitzari zintzo, apalak  
amai au ez dau merezi,  
zuzentasunak lur onetatik  
ezpadau guztiz igesi.

Baiña zuzentza ez da iñor be  
berekoiaren etxean...  
Alan ba, nire bizitokia  
nok daki aurrerantzean?

Zarren zoria beti da bardin  
eskar-txarreko ludian:  
danak txeratsu zerbaiteko  
gai garean bitartean.

## II

Urrengo goizez ondakiñakaz  
yo neban simaur tokira,  
tamal-agur bat ez neban entzun...  
iñor ez egon begira.

Itxaropena guztiz galduta  
bein nengoala oldozten,  
zerbaiten bille eldu zan baten  
oinkadak entzun nituen.

Ikusi nindun ta bereala  
ziñoan agin-arteana:  
«Aterki zar au gauza leiteke  
zerbaiteko etxean».

Goitik beraiño aztertu nindun  
ta astindu batzuk emonaz,  
artu ninduen galtzarpean ta  
eroan nindun beragaz.

Etxera eldu zanean baiña,  
nire saietsak ikusi:  
au ez dot gauza ezertarako

ta bazter batera yaurti.

Iru illetan an egon nintzan,  
gauzezen antzez aztuta;  
etorkizuna, baltza aurrean,  
itxaropena galduta.

Baiña bizitzan zoritxarrak be  
ez dira amaibakoak,  
pozgarriren bat ba'ki bialtzen  
noz bait gure Yaungoikoak.

Biotz-bera dan morrosko batek,  
nire zoritxar yakitun,  
ardura andiz artu ondoren  
beragaz eroan nindun.

Amairu ordu «osategian»  
igaro ondoren nekez,  
atundu nindun, ta or narokia  
erakusten eredu lez.

Kirtana dauka zidar-apaiñez,  
bizkarra egur antzeko;  
barrena barriz, ez dakit ziur,  
baiña uste dot «latoizko».

Eun mengelezko soñekoa dot,  
eguzkitako ez txarra,  
euri aldian, baiña, uste dot,  
ezertako ez nazala.

Alan be, orain, zerbaitzat nauke  
ta ni pozez...! zoruntsua!,  
neu-ongillea dakustalako  
kiloen bat gizendua...

Eta, izan be, trebetasunaz  
ebatzi dan auzi latz au:  
gauza zar bigaz barri bat egin...  
Nork orain arte lortu dau?

Nik, beintzat, pozik eskar oneko  
agertu nai dot benetan:  
«Uzaba yauna, eskerrik asko,  
mun dagitzut nik oiñetan».

Bertsotarako betarik ez-ta,  
amaitu nai dot beingoan,  
gatz geitxoago somatzen ba'dot,

yarraitzeko urrengoan...

Post scriptum:

Nire ongille biotz andiko  
nor dan yakin gura zeunke?  
Abade yaun ta agurgarri dan  
Zubeldia'tar Pilipe.

Honiton (England) St. Joseph

Ikastetxean. 1940'go Lotazilla-6gn.

**G. Manterola**